

Urola Kostako Lurraldearen Zatiko Plana

AURKEZPENA

2006ko otsailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Urola Kostako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana 32/2006 Dekretuaren bitartez onartu zuen.

Atseginez betetzen nau zorroztasun tekniko handiarekin egin den eta, era berean, ituntze-konpromisoari erantzuten dion dokumentu hau aurkezteak. Ildo horretan, azpimarratzekoa da erakundeek eta gizarteko taldeek egin dituzten ekarpenen kalitate handia.

Euskal Autonomia Erkidegoa benetako "eskualde-hiria" da, gaur egun erronka berriak aurrez aurre dituzten eta gizakien bizitzarako eta jarduera ekonomikoak, bizitegia, aisia, kultura, hezkuntza, azpiegiturak eta naturarekiko harremana garatzeko alternatiba berriak planteatzen ari diren munduko beste eskualde-hiri batzuen antzeko eskalako lurraldea hartzen duena.

Euskal Hiriaren edo euskal eskualde-hiriaren ideia euskal lurraldearen berezko lehia-abantailatan oinarritzen den etorkizuneko proiektua da, Europako ia herrialde guztiek erdietsi nahi ditugun lurralde-helburuen ildoan, hots, polizentrismoa, nortasuna eta eskualde-hiri izendatu ditugun errealitate berri hauek osatzen dituzten kokaguneen arteko osagarritasuna.

Helburu hauek lortu ahal izateko, Euskadi elkarren osagarriak diren eta guztien artean lurralde orekatu, lehiakor, erakargarri eta iraunkoragoa eraikitzeke aukera emango diguten tresna desberdinek osatutako lurraldea antolatzeke sistema batez baliatu da.

Lurraldea antolatzeke sistema berri horretan protagonismo berezia bereganatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (LAA) mugatutako lurraldeko eremu funtzionalekin bat datorren "bitarteko lurralde-eskalak".

"Bitarteko lurralde-eskala" hori artikulatzeko, Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) idazten ari dira eremu funtzional bakoitzean. Plan horietan eremu funtzional bakoitza barnetik egituratzeko mekanismoak proposatzen dira, euskal sistema hiritarrean beharrezko oreka eta gunee eta lurraldeen bokazioen arteko osagarritasuna lortzeko asmoz. Planteatzen diren lurralde eta arloko estrategien asmoa udalerrri guztietako biztanleentzako zuzkidura, ekipamendu eta zerbitzuen eskaintza optimizatzea da eta, horretarako, eskualde-mailako zerbitzuak eremu bakoitzeko gunee egokienetatik eskaintzen ahalegintzen dira.

Urola Kostako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak ondoko udalerrriak barne hartzen ditu: Aia, Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia. Plan horren helburu nagusiak izango dira, eskualde-egituraren garapen iraunkorra bermatzeko 16 urteko denbora-tartean gertatu behar diren eta lurraldean eragina izango duten ekintzak koordinatzea.

Ingurune fisikoari buruz, Lurraldearen Zatiko Planean jasotzen denez, funtsezkoa da natura-ingurunea babestea eta balioz hornitzea. Hori dela eta, Pagoeta Natura Parkea eta Iñurritzako Babestutako Biotopoa jasotzeaz gain, Granada Errekako korridorea, Pagoetaraino, Natura 2000 sarean barne hartzea eta, esparru horretan, Hernio-Gatzumerako zehaztutako Interes Komunitarioko Lekua zabaltzea proposatzen du, horrek Pagoetako Natura Espazio Babestuekin bat egintu duen moduan.

Bestalde, Planak lurralde-berronka proposatzen du, ekialdeko kostan (Oria ibaiaren itsasadarra eta hara isurtzen duten haranak), eta, batez ere, mendebaldeko kostan (Urola eta Narrondo arteko itsasadarra) eraikitzeke ahalegina bultzatuta; eta, era berean, Iraurgi Eremu Funtzionalaren barruan finkatzea proiektatzen du. Erdialdeko kostan (itsasertzeko erlaitza Zarautz eta Getaria artean, Pagoetaraino), berriz, garapen-erritmo geldoagoak berreskuratzea planteatzen du, finkatutako bilbeak eraberritzen saiatuta.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruari dagokionez, Planak haren kuantifikazioa arautzen du eta, beste proposamen batzuen artean, hiru esku-hartze estrategiko hauek nabarmentzen ditu: Epe

laburrera eta eskala handian, Sansinenean (Arroa-Zestoan) lurzorua prestatzea, hirugarren sektorera eta zerbitzuetara bideratutako eremu bat antolatzea Artikon (Zarautz) eta lurzorua eskala handian gordetzea Iraetan (Zestoa).

Garraio-azpiegituraren arloan, Planak Sansinenean kokatu beharreko eremu logistiko bat eta Lasaoen garraiora zuzendutako eremu bat gaitzeko beharra ezartzen du. Gainera, errepide-sarea, eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako oinarritzko sarea finkatzea proposatzen du. Trenbideari dagokionez, beste ekintza batzuen artean, hau proposatzen du: iparraldeko egungo ardatza zabaltzea eta Urolako trenbidearen utzitako trazadura berreskuratzea, Zumaia eta Urretxu artean. Horrez gain, trenbide hori Santa Luziako etorkizuneko geltokiarekin lotzea ere aurreikusten du (Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berria).

Azken finean, plan honek euskal lurraldearen "bitarteko eskala" artikulatzea du helburu, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen orientabide estrategikoak garatze aldera. Izan ere, eremu funtzionalari zuzen-zuzenean eragiten dioten gai zehatzetatik hurbilago dago, lurralde-oreka, garapena eta herritarren ongizatea erdietsi nahi dituen etorkizuneko proiektua proposatzen du-eta.

ESTHER LARRAÑAGA GALDOS	KOLDO AZKOITIA ZUBIZARRETA
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburua	Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Foru Diputatua
Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio	Diputado Foral para la Ordenación y Promoción Territorial